




BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1995eko ekainaren 28a. 17. zenbakia. Doan banatzen da.




Arg. Julen Unamue

San Pedro jaiak **ASTEASUN**

Telebanca

901 333 444

Euskadiko Kutxaren
Banka
Telefonikoa




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ASTEASU San Pedro jaiak

1 9 9 5

16,00etan: **ASTEASUKO
XX. TXIRRINDULARI
PROBA**

1. eta 2. mailako
afizionatuentzat

22,30etan: **Dantzaldia ETZAKIT
taldearekin**

UZTAILAK

21,30etan: **HERRI-AFARIA**

Ondoren: **GAUPASA**

- INCANSABLES txaranga
- HARITZA taldea
- TXOKOLATADA

LARUNBATA

10,00etan: **ASTEASUKO GANADU
FERIA - ERAKUSKETA**

11,00etan: **EUSKADIKO SOKA TIRA
TXAPELKETA**

640kg.:

Iparralde, Gaztedi, Mutriku,
Haitzaspe, Nuarbe A eta Nuarbe B

680kg.:

Gaztedi, Mutriku, Haitzaspe,
Nuarbe A eta Nuarbe B

19,30etan: **HERRI-KIROL JAIALDIA**

Harrijasotzaileak:

MIKEL SARAILEGI,

IZETA II.a eta EGI A

Aizkolariak:

FLOREN NAZABAL

JOXE ETXEBESTE

22,30etan: **Dantzaldia TRAKETS taldearekin**

**JAI ZORIONTSUAK
HERRITAR GUZTIOI.
ONGI ETORRIAK SAN
PEDRO JAIETARA
HURBILTZEN ZARETEN
GUZTIOI.**

Eguerdian: **ELIZMENDIKO
JAIA**

22,30etan: **Dantzaldia
EGAN BERRIA
taldearekin**

18,30etan: **Herri-kirol jaialdia**

Bikoteak:

**ZELAI eta SALTERAIN
SARASKETA eta ZELAILUZE**

Probak:

Harrijasotzea, gizon proba, trontza,
txinga eta korrika.

22,30etan: **Bertso saioa:**

**PEÑAGARIKANO, MENDIZABAL,
IRAZU eta SOROZABAL**

Ondoren: **Dantzaldia AKELARRE taldearekin**

Aurkibidea

1. AURKIBIDEA.

ZE BERRI?

Amaia Agirre bertsolari billabonarra.

2. INKESTA.

Eta zu, zer moduz azterketa garaian?

3. ADUNA.

Tabernak badu nagusi berria.

4-5. ANDOAIN.

Ekaitza taldearen aurkezpena.

PSE-EEko Josean Perez Gabarain Alkate.

6. ASTEASU.

Makina bat kontu sortu ditu plazak.

7. BILLABONA-AMASA.

Joxin Mujikak alkate kargua hartu du.

8. ZIZURKIL.

EAJ-PNVren alkatetza datozen lau urteetarako.

9-10. ERREPORTAIA.

Alkate berriein solasean.

11. BASERRIA.

Billabonako Nekazal Kamara.

12-13. KIROLA.

Jon Usandizaga: Errealeko kadeteetan.

Leizaurrek probak bertan behera utzita.

14. LEHIAKETA. SUKALDE TXOKOAN.

15. HEMEROTEKA.

16. AGENDA.

Ze berri?

Amaia Agirre BERTSOLARIA



BILLABONARRA; 17 URTE; UBIKO IKASLEA; EUSKAL FILOLOGIA IKASKETAK EGINGO DITU; ZALETA-SUNAK; FUTBOLA, TXIRRINDULARITZA ETA IDAZTEA.

- Aurten txapelketa batzuetan hartu duzu parte, ezta?

- Eskolarteko txapelketan, Bilintx txapelketan eta Gipuzkoako txapelketan. Lau garren eta bigarren postuak lortu ditut lehenengoetan, eta erdialdean geratu naiz nagusian. Gazteenen taldean aritu naiz, eta egindako lanaz nabikoa gustora nago.

- Zer moduzko esperientziak izan dira?

- Eskolartekoan batez ere, butsopil bandi samarrak hartu ditut. Ume koskortzat hartzen gaituzte. Gaiak oso sinpleak dira, eta ez dakit epaileak oso erne egoten diren. Gipuzkoako txapelketa, jakina, serioagoa izan da. Hala ere gure saioan, behintzat, inuditzen zait oso maila altua jarri zutela, eta puntuazioan hori nabaritu egin zen.

- Plazetan bertsotan ibili nabiko zenuke?

- Ez dut astebururo saiorik eskatzen, baina berriko jaietan sikiera, puntako beste bertsolariekin batera berriko baten bat jartzea ez zait gebiegi eskatzea denik inuditzen.

- Ba al dago berrian bertso girorik?

- Ez dut uste zaletasun handirik dagoenik. Gainera, Andoingo bertso eskolan hasi den laukote bat kenduta, ez dut beste bertsolaririk ezagutzen. Nabikoa bakarrik nago.

- Txomin Garmendiarekin omen zabiltza bertsotan?

- Bai, asteen behin elkartzen gara. Kontu zabarrak kontatu obi dizkit eta obikoa ez den beste estilo bat ezagutzeko aukera daukat berarekin.

- Ze ezberdintasun dago bertsolari gazte eta zabarren artean?

- Hizkuntzan sekulako alde dago, zabarena askoz ere aberatsagoa da. Beren zorrotasuna eta grazia ere ezin dira parekatu. Sekulako ostikoak ematen dizkiogu gazteok bizkuntzari batzuetan. Nik garrantzi handia ematen diot bizkuntzari. Euskara sakratua da niretzat.

- Zein da zure ustez bertsolaririk osatuena?

- Andoni Eganña, zalantzarik gabe. Oso ondo erabiltzen du bizkuntza, eta sekulako ateraldiak izaten ditu.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur

Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31

Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.

Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika.

Administratzaile-eragilea: Kepa Sarasola.

Inprimategia: Gertu Kopp. E. (Zubillaga, Oñati).

Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.



M. LARRAMENDI



Aldizkari honek Eusko
Jarduaritzako Kultura Sailaren
laguntza jasotzen du




Aldizkari honek Gipuzkoako Foru
Aldundiko Kultura
Departamenduaren laguntza jasotzen du

Eta zu, zer moduz azterketa garaian?

Uda inguratzen denean ikasle jendea aztoratu samar nabaritzen da: eguzkia berotzen hasten delako, oporrak hurbiltzen ari direlako, eta azterketa garaia delako, batez ere. Ikasketa mailaren arabera oia izan ohi da normalean urduritasuna. Dena den, gehia-

go edo gutxiago garai honetan beti-beti nabaritzen da kezka ikasle populazioaren artean. Liburutegiak inoiz baino beteago egoten dira, ikasgeletan giroa gori-gori egoten da, eta gazte asko eta asko suminkor samar. Izan ere, azterketa garaia da.



Borja Pacho,
ikaslea. Andoain

(Azterketak amaituta, arrantzara la-sai zihoala aurkitu dugu). Ez naiz oso urduri jartzen. Gehiena azken egunera arte uzten dut. Hala ere, emaitzak orain arte ez dira txarrak izan, beraz...



Luis Perez, jubilatua.
Billabona.

Nik berehala utzi nituen ikasketak bai-na nire bilobak beti kezuka dabilta. Gurasoek gehiago lagunduko baliete... Komunikazio falta nabarmena dago gurasoen, irakasleen eta haurren artean.



Mainer Etxabe,
ikaslea. Andoain.

Gai batzuetan bakarrik jartzen naiz urduri samar. Ez dut dena azkenerako uzten. Lana aurreratuta edukitzea gus-tatzen zait, eta orain arte behintzat ongi moldatu naiz. LHko 2. mailan nago.



Anaixel,
jostungia. Asteasu.

Azterketa garaia ez dut inoiz bizi izan; ikasketak ez ditut inoiz oso serio hartu. Inguruan jendea oso estu-tuta ikusi izan dut. Halere, ez dut uste azterketek askorako balio dutenik. Azkenengo egunean ikasita, jai dago!



Belen Ferrero,
ikaslea. Zizurkil.

Azterketek urduri jartzen gaituzte ez baitakigu zer galdetuko duten. Askotan ikasita ere, zorteak zerikusia handia izan ohi du. Beraz, azterketek ez dute ondo neurtzen norberak dakiena. Ikasleok nahiago izaten ditugu talde lanak.



Mainer Aburuza,
ikaslea. Aduna.

Administrari ikasketak egiten ari naiz. Azterketa guztiak batera jartzea ez zait oso egoki iruditzen, hobe da azterketa batetik bestera denbora uztea. Gainera, azterketarako ikasten dena ez da nahikoa.



LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA


KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGETLSARITZA



LIBURDENDA PAPERDENDA

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN



Tabernak badu nagusi berria

Koldo Sansinenea izango da Adunako tabernari berria


Enkantera aurkeztu zirenen artean Koldoren proposamena izan da hautatua eta uztailearen lehenetik aurrera tabernara joateko ohitura duenak berrikuntzarik topatuko du: aukeratzeko eguneroko menuak, pintxoak... Finean, kalitatea eskuratzeko aukera izango du bertara doanak, eta merke gainera.

Koldo Sansineneak urte asko daramatza sukaldari bezala eta esperientzia horrek balio izan dio taberna bost urtez eskuratu ahal izateko. Datorren uztailearen lehenetik 2000. urtera arte tabernako nagusia izango da. Berarekin batera beste hiru pertsonak lan egingo dute tabernan.

Eskaintza ugari egongo da tabernan. Eguneroko menua 750 pezetakoa izango da eta menu aukera ezberdinak egongo dira. Asteburuetako menua berezia izango da 1.800 pezetan, eta prezio horretan bezeroak ederki jateko aukera izango duela esan digu Koldok. Bestalde, menuez gain, pintxo eta ogitarteko ugari izango dira. Afarietan momentuz ez dute pentsatu baina aurrerago jendearen eskaeren arabera afaritarako aukera egongo da.

Herrikoen bilgune

Taberna herrian dagoen bakarra dela kontuan hartuz jendearen bilgune izaten da askotan eta jendea bertan gustora egotea da bere asmoa. Horretarako jaietan eta ihauterietan ekitaldi bereziak egongo direla aipatu du Koldok eta bat-bateko egitarauak ere lekua izango dutela esan digu. Afariei dagokienez, momentuz egunero izango ez badira ere, lagun taldeen enkarguak, banketeetarako eskakizunak eta abar jasoko dira, ospakizunetarako ere aukera egongo delarik.



2.000. urtera arte lortu du enkantean taberna

"Oraindik ez dakit zehazki zein behar egongo diren eta zenbat jende etorriko den egunero. Herriko zenbat jende ibiliko den jakitea nahiko erraza da. Hala ere, udan betebetean gaudela kontuan hartuz, kanpoko jendea etorri ohi da horrelako herri lasaietara bazkaltzera. Egun pasa datorrenak merke eta ondo jaten den lekua topatuz gero, gustora joaten da, eta hau leku aproposa izango da horretarako", esan digu Koldok.

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



Ekaitza taldearen aurkezpena

Arazo sozialak dituzte hizpide

Deportivo tabernan egin dute lehenengo saioa. Bertan aurkeztu zioten herriari taldea, lehenengo solasaldi saioa eginez. Herriko talde bakarrak hartu zuen parte, baina aurrerantzean ere gainerakoekin harramanetan jarri eta saio berrietara gonbidatzeko asmoa daukate. "Langabezia eta gazteak" izan zen lehenengo saioan hizpide. Bi ordutako hizketaldiak elkar hobeto ezagutzeko eta, batez ere, gazte langabetuek euren egoeraz, eta eragin dituen arazoetatik eta dakartzen ondorioetatik iritziak eman, jaso eta hausnartzeko balio izan zuen.

Ekaitza taldeak Hego Euskal Herrian ezezik, estatu osoan ere baditu taldeak eta ordezkariak. Orain dela bi urte sortu zen gutxi gorabehera. Murrizketa sozialak izan zituzten aurreneko urtean hizpide, eta soldata soziala iaz. Urtean bi jardunaldi eta zenbait ekintza egin ohi dituzte. Aurten langabeziari buruz, eta bereziki gazteen egoeraz hitz egingo dute. Berez taldea ez dago jende gazteari soil-soilik mugatuta, baina partaide gehienek ez daukate hogeita bost urte baino gehiago.



Deportivo tabernan biltzen dira

Bi orduko tertulia

Edozein ekintza egin aurretik taldekideek beraiek egoera nola bizi duten eta zer pentsatzen duten jakitea ezinbestekoa iruditzen zaie. Horretarako inongo pertsona adituren beharrik ez dutela uste dute; eurak izan nahi dute bizi edo "jasan" dituzten egoerei buruz iritziak eman nahi dituztenak. Horregatik hitz egin zuten lehenengo egunean lanaz, solda-

taz, langabeziak, eragin ohi dituen arazoetatik, marginalitateaz eta abar. Bilera guztiei taldekide batek ematen die hasiera gaiaren aurkezpena eginez, eta ondoren saiora bildu diren guztiak eman ohi dute iritzia banan-banan berezko tertulian ekin aurretik. Ez dituzte saioak bi ordu baino gehiago luzatzen, eta bertan esandako guztia jaso eta taldekideen artean idatziz banatzeko ohitura daukate.

Gipuzkoan Irunen eta Andoainen daude taldeak. Andoainen edozein pertsonak edo taldek Ekaitzarekin harramanetan jarri nahi izango balu Anahirekin jarri behar du harramanetan 59 08 80 telefonora deituz.

San Pedroak Kaletxikin

Lamberto Otermin eta Manuel Olazabal
bazkideei omenaldia

EKAINAK 30, OSTIRALA

20.00etan: Kandido eta bere txikitxoiei ongietorria. Trikitilariekin, dultzainariekin, txistulariekin eta buruhandiek batera beraiek emango diete jaietara hasiera.

23.00etan: Eklipse taldearekin dantzaldia.

01.00etan: Oilasko hotza txanpainarekin Ontza elkartean.

UZTAILAK 1, LARUNBATA

11.30etan: Haurrentzako jolasak.

12.00etan: Kale Txikiko II. sagardo lehiaketa.

16.00etan: Plater tiroketa txapelketa herrikoia eta I. mus txapelketa azkarra.

16.30etan: Toka txapelketa herrikoia.

20.00etan: Ontza elkartean afaria eta Lamberto Otermin eta Manuel Olazabali omenaldia.

22.30etan: X. Danborrada nagusia.

23.00etan: Dantzaldia Agirren taldearekin.

UZTAILAK 2, IGANDEA

09.00etan: Txistularien diana.

11.00etan: Urki dantza taldearen saioa.

12.00etan: Meza Berrozpeko kaperan.

14.00etan: Kale Txikiko V. bazkari herrikoia.

18.00etan: Auzoko ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol saioa.



Zabala

Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



PSE-EEko Josean Perez Gabarain Alkate

Aritz Arnaiz presoak Udal Batzan parte hartu zuen

Josean Perez Gabarainek ez zituen alkate izateko gehiengo absoluto bitartez behar zituen bederatziko botoak lortu; zazpi baino ez zituen eskuratu. Dena den, Udal hauteskondeetan sozialistena boto gehien jaso zuen zerrenda izanenez, Alkate izendatu zuten. EAJ-PNVk PSE-EEko hautagaiak alkatetza lortzeko eragozpenik ez zuela jarriko eta abstenitu egin zen. Era horretan hiru alderdien arteko hitzarmenean jasotako akordioa ez dutela hautsi adierazi dute. Alkate izendapen egunean Ertzaintzak inguratu zuen udaletxea. HBko zerrendakide den Aritz Arnaiz preso andoaindarra Udal batza aretoan sartu zenean ETaren aldeko eta gobernukide diren alderdien aurkako oihuek eta iraiinek bete zuten aretoa.

Kezka, emozioa eta aretoan bildu ziren zenbait herritarren salaketak eta oihuak nagusitu ziren aretoan bozketa bitartean. Perez Gabarainek eman zituen bozketaren emaitzak eta gehiengo absolutoa lortu ez zuenez, legeak agindu bezala Udal hauteskondeetan boto gehien jaso dituen alkategaia izanik, izendatu zuten Alkate. EAJ-PNV taldeko Eugenio Arizimuño ez zen mahaian eseri.

"Abstenitu egingo gara" adierazizion Garbiñe Egibarrek, EAJ-PNVko zerrendaburuak bezperan AIURRIri, "Hitzarmen hirukoitza errespetatuko dugu. PSE-EEK alkatetza lor dezan inongo eragozpenik jarri gabe". Perez Gabarainek EAJ-PNVren abstenizioa ez zuela oso begi onez ikusiko adierazi zigun era berean karguhartze bezperan: "Herritarrei begira hori ez da batere serioa". EAKo kidea den Xabier Huizik ere antzeko kezka egertu du: "Udaleko gobernuri babesa nork ematen ote dion galdetuko dute herritarrek beste behin". Gobernu sendoa osatu nahi izan duelako eman dio EAK Perez Gabaraini botoa.

Aritz Arnaiz esku-burdinak jarrita iritsi zen aretora, Carabanchel utzi eta Burgosen gaua igaro ondoren. Ekitaldiaren aurretik eta ondoren Aritzek senitartekoekin eta lagunekin egoteko minutu batzuk izan zituen. Aritz Arnaizek ekitaldian presoan egoera ezagutzera eman eta gobernukide diren alderdien politika salatzen. Ekitaldia bukatu ondoren zenbait

herritar eta Ertzaintza liskartu egin ziren. Ertzainek airean tiro batzuk egin, jendea uxatu, eta enparantza Aritz eraman ondoren hustu zen.

Gobernu Batzordea

Uztailaren 17ra arte ez da era ofizialean gobernu taldea ezagutuko. Hitzarmen hirukoitza osatzen duten alderdiek egitaruari dagokionez, hala ere, bat egin dute dagoeneko. "Oso pozik gaude -esan zigun Egibarrek- egitarauaren %95a guk proposatutakoa da, eta eragozpenik gabe onartu dute". Perez Gabarainek eta Huizik berriz, hiru alderdien egitarauen artean alde handirik ez zegoela adierazi digute. Hala ere, egun haietan gainontzeko batzordeen banaketak gobernu osatzeko eragozpen bat



Perez Gabarainek eta Aritz Arnaizek osatu zuten adineko mahaia

baino gehiago sortzen ari zela somatu genuen, izan ere EAJ-PNVk sozialistek adina zinegotzi dauzkatela argudiatuz, hiru batzorde pisuzkoenak lortu nahi zituzten. Perez Gabarain ez zegoen eskakizun horrekin batere ados, eta akordioaren batera iritsi ezean, bakarrik edo EArekin gobernatzeko prest zeudela adierazi zigun. EAK berriz, Alkate karguhartzea baino lehen erabaki nahi zuen batzordeen banaketa.



Aurre emanda egon ziren



Herriz herri

Asteasu

Makina bat kontu sortu ditu plazak

EAk erabakiaren aurka egin nahi izan zuen

Ekainaren lehenengo astean hasi ziren enparantza zaharra botatzen, plaza txukunago bat egiteko asmoz. Batzuek bizkorregi bota dutela diote. EA alderdiak, beraiei iritzirik ez zitzaieela eskatu adierazi dute, eta orain arte Herri Bata-sunako alkate izan den Asintxio Iturbek berriz, duela urtebete Udalean hartutako erabakia gauzatu dutela.

Ekainaren 5ean hasi ziren plaza botatzen eta berehala amaitu dituzte lanak. Ondoren galipotez estali dute tokia, berria egiteko lanak hasi bitartean. Orain arte alkate izan den Asintxio Iturberi galdetu diogu plaza botatzearen arrazoiak, eta duela urtebete hartutako erabakia dela erantzun digu: "Ekainaren lehenean Hirigintza batzordea bildu zen eta bertan, plaza botatzeko aspaldiko erabakiaz hitz egin zen. Berehala bota behar zela esan zuten" dio Iturbek, erabakia non hartu zen argituz, "Kontua da -gaineratu du- EAKo partaideak ez zirela agertu".


Hilaren 5ean, astelehenean eginiko Udal Batzarrean onartu behar zen erabakia. EAk erabakia inpugnatu egin nahi izan zuen. Beren esanetan, batzordea bildu eta Udal Batzarra egin bitarteko epea bi egun baino gutxiagokoa izan zen, eta ondorioz, hartutako erabakia ez omen zen legezkoa. Asintxiok esan digunez, "zortzi urtetan, batzordeak ostegunetan bildu eta Udal Batzarrak astelehenean egin dira, inongo arazorik gabe", eta horregatik erabaki zuen Udal Batzarrak plaza botatzeko lanekin aurrera jarraitzea.



Zeresan ugari sortu du herritarren artean

Enparantza bota dute eta orain, plaza berriaren egitasmoari helduko diote. Asintxioren esanetan Diputazioak enparantza berria egiteko dirulaguntza emango du.

Jarraian datozen bi herritarrei eskatu diegu iritzia. Asteasuar guztien iritziaren adierazgarri ez izan arren, lekuko batzuk jaso nahi izan ditugu. Galdera jende gehiagori egin arren, batzuek ez dute argitaratzerik nahi izan.



Leonardo Talabera

Hogeita hamasei urte daramatzat hemen bizitzen eta oraingo moduan ezagutu dut beti plaza. Egia esan, gehiago gustatzen zait oraingoa, baina gaizki egin dute egun batetik bestera botatzean. Gutxienez, plaza botatzeko asmoa zegoela esan behar zuten; gauza horiek herriarekin kontsultatu behar dira.



Brijida Talabera

Gustora nengoen lehengo plazarekin, bere lorategi eta eserlekuekin. Orain berriz, aparkaleku baten itxura hartu du plazak. Herritarrok ez genuen plaza botako zuten berriki eta ezustean harrapatu gaitu lau egunetan plazarik gabe aurkitzeak. Plaza egokia ez bazen, egin aurretik pentsatu behar zuten. Orain, gutxienez, eserlekuak eta zuhaitzak jartzea eskatzen dut.



Iturri-Ondo
J A T E T X E A
Jai zoriontsuak opa dizkizue...
☎ 69 13 31 **ASTEASU**



PATXINE
JATETXEA
ONDO PASA JAIK
GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK
Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



Joxin Mujikak alkate kargua hartu du

Gobernu Batzordearen osaketa egiteko hizketan ari dira

Bidean taldeko alkatea izango du Billabonak datozen lau urteetan. Bere alderdikideen botoez gain, EAJ-PNVren botoak jaso ditu Joxin Mujikak. Bidean taldeak alderdi guztiei luzatu die beren proposamena. Baieztatu ez bada ere, badirudi Bidean taldea eta EAJ-PNV alderdia izango direla Gobernu batzordekideak.

Alkatearen karguhartzearen ondoren Gobernu Batzordearen eraketarako hilabete gelditzen bada ere, Billabonan bi aste barru osatzea pentsatzen dute, jaiak hasi baino lehen. Bidean taldeak publiko egin duen proposamenean alderdi ezberdinei luzatu die bere eskaintza. Batzordeetan parte hartzeko jarri duten baldintza nagusia azken aldian Billabonan egon diren indarrezko ekintzak eta aurrerantzean egon daitezkeenak salatzea da: "Billabonan bakean bizitzea ezinbestekoa da guretzat, eta hori aurrera eramateko Kutzaren erreketa bezalako gertaerak salatu behar direla pentsatzen dugu. Era berean, Gobernu Batzordeko zein beste batzordeetako arduradunek bakezaletasuna defendatu behar dutela uste dugu eta hori izango da gure gobernukideei eskatuko diegun baldintza", esan du alkate berriak.

HB Gobernu Batzordetik kanpo

Herri Batasunak Gobernu Batzordean parte hartzeko eskakizunari baldintza hori betetzea eskatu diote Bideaneko kideek. Herri Batasunaren ustez berriz, Bidean taldeak gauza bat esan eta bestea egiten du: "Inongo alderdi politikoren babesik ez duela esaten duen tal-



Gobernu Batzordea jaietarako

de hori beste herrietan gertatzen den gauza berbera egiten ari da, Herri Batasunaren partaidetza ukatu, nahiz eta demokratikoki partaidetza guri dagokigun", esan du Klaudio Etxeberriak HBko kideak, "Kutzako gertaerak" gaineratu dute "ez dituzte testuinguruan kokatzen eta herri honetako arazoak gainditzeko ez dute konturatu nahi Kutzaren erreketa bezalako kasuak salatzea baino zerbait gehiago egin behar dela". Gobernu Batzordean parte hartuko ez badute ere, herriaren nahia bermatzeko batzordeetan gogoz lan egiten jarraituko dutela adierazi dute HBko kideek.

Batzordeen eraketa ofiziala egin artean badirudi Gobernu Batzordea Bidean taldeak eta EAJ-PNV alderdiak osatuko dutela. EAK oposizioan egotea aukeratu du, eta HBk ez du batzordeetan parte hartuko.

Billabona-Amasa

URPA, S.M. AUTOBUSAK



**KALITATEA
ETA
SEGURTASUNA
ZURE
ZERBITZURA!!**

Sorabilla Auzoa, 53. Pol.

☎ (943) 59 38 05

Fax (943) 30 01 06

Autobusak. (908) 17 18 92

Mobilak (908) 77 20 43

**ANDOAIN
GIPUZKOA**

OGi ZURi

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

OGi-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA



Herriz herri

Zizurkil

EAJ-PNVren alkatetza datozen lau urteetarako

HB: "Herriak aukeratutako alkatetza kendu digute"

Ekainak 17an eginiko Udal Batzarrean izendatu zuten alkate berria eta hilabeteko epea dute gobernu taldea eta batzordeak eratzeko. Herri Batasuna izan zen Udal hauteskondeetan boto gehien jaso zuen alderdi politikoa, baina ez dute alkatetza lortu EA, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiak elkartu baitira, hirukoa osatuz. Lau boto jaso zituen HBko Xabier Pellejero alkategaiak, eta sei EAJ-PNVko Juanjo Aranburuk, alkatetza izateko behar zen gehiengo absolutoa lortuz.



Bozketaren emaitzak zenbatzen

Goizeko hamaika terdietan hasi zen alkatea izendatzeko Udal Batzarra eta ordu laurdena iraun bazuen ere, tentsio une gogorak bizi izan ziren. Hirukoak zituen zazpi zinegotzietatik seik, EAJ-PNVko alkategaiari eman zioten botoa; batek ordea, boto zuria eman zuen. Ondorioz, HBk, hamabi urtetan izan duen alkatetza galdu du. Orain arte alkate izandako Mikel Arrastoak Udal Batzarrean adierazi zuenez, "herritarren nahia ez da errespetatu, alkatetza HBrena izatea, alegia". Earen jarrera ere salatu zuen Arrastoak: "EAk boto gehien lortu duen herrietan alkatetza errespetatzea eskatu duen bitartean, Zizurkilen aurkako jarrera hartu du". Talde hi-

rukoitzaren partaideek herriz, ez zuten inolako adierazpenik egin.

Herritarrek haserre

Udal Batzarrean bildu ziren herritarrek, "lapurrak", "espainolak", "traidoreak" eta antzeko oihuak bota zituzten alkatetza osatu zutenen aurka, eta HBk egun batzuk lehenago banatu zituen orriak jaurtiki zituzten Udal Batzarraren ostean. Orri horietan Herri Batasunak gogor salatzen zuen hirukoaren jarrera, alkatetza kentzea jarrera antidemokratikoa dela esanez, "Madrilgo eta Gasteizko estrategiak jarraitu dituzte" zioen idatziak. Gainera, orri horiek sinatzeko,

Udalera bidaltzeko eta Udal Batzarrean parte hartzeko eskatzen zieten herritarrei. Bestalde, HBkoek adierazi dutenez, ez dute batzordeetako ardurarik hartuko, "ezin dugu herriak aukeratu ez duen Udal egitarauarekin lanik egin" esanez arrazoitu dute oposizioan egotea.

Aipatzekoa da alkatea izendatzeko egunean Ertzaintzaren furgoneta bat egon zela udaletxearen inguruan, istiluak egongo zirela aurrikusiz edo. Eta istiluak egon ez baziren ere, pintadak agertu ziren herriko txoko eta EAJ-PNVko eta EAko egoitzetan bi alderdien jarrera salatuz.

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

Alkate berriekin solasean

Udal hauteskundearen emaitzak ezagutu ondoren derrigorrezkoa genuen herrietako alkate berriak aurkeztu eta beren egitasmoak eta ideiak herritarrei ezagutzera ematea. Andoainen eta Zizurkilaren alkatearen aukeraketak alderdi bakoitzak jasotako boto kopuruari ezezik, alderdien arteko negozi-

zioei erantzun die. Asteasun eta Billabonan hauteskundearen emaitzek ez dute ezusterako lekurik utzi. Hona hemen, bada, alkate berriei eskainitako lehenengo saioa. Asteasuko Iñaki Amenabar eta Billabonako Joxin Mujika izan ditugu oraingo honetan solaskide.

Iñaki Amenabar, Asteasuko Alkatea

“Bihotz-bihotzez eman nahi dizkiet herritarrei eskerrak guregan jarri duten konfidantzagatik”

Gipuzkoako alkate gazteenetakoa izango da, gazteena ez bada. Hasi-rako hilabeteak gogor samarrak izango direla uste du, baina animatuta dago. Orain dela lau urte afiliatu zen EAn. Euskaltzale, abertzale eta antimilitaristatzat dauka bere burua, horregatik

aukeratu zuen EA. Politika gustoko omen du, eta lau urteak alkatetzan egon ondoren, mundu horretatik gertu ibiliko dela iruditzen zaigu. Elkarrizketa amaitu aurretik, ahaztu gabe, herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkie eta herriaren zerbitzura dagoela adierazi.

Iñaki Amenabar
Aranburu



Urkidi baserrikoa
24 urte
Zuzenbide ikasketak
egiten ari da
Zaletasunak: natura,
animaliak, mendia,
baserria

- Nolatan alkategai?

- Proposatuta eta korrika irtetzeko gogoa sentitu nuen. Baina bestalde, gazteok nabiko ongi prestatuta gaude eta herriari gure zerbitzua eskaini behar diogu. Baiezkoa eman nuen, baina EAJ-PNVri eta independenteei zerrenda irekitzea proposatu nuen. Talde herrikoia izan zedin nahi nuen.

- Honez gero emaitzak baloratuko zenituzten?

- Irabazteko aukera bagenuela iruditzen zitzaitaigun. Baina herriari inoiz bi alderdiren artean izan den alderdi handiena atera diegu, eta oso pozik gaude. Batzuek ez zeuden HBk egindako gestioarekin ados eta herriak aukera bat eman nahi izan digu.

- Herria ere bi alderditan banatuta al dago?

- Herriak denok ongi konpon gaitezen nahi du. Egia da, bala ere, bereizketa bat badagoela IIBkoak direnen eta ez direnen artean.

- Zer deritzozue HBk egindako lanari?

- Aurreko urteetako gestioa nabiko ona izan zen. Baina azken urte Erdian iparra galduta ibili dira, herriaren iritzia jaramon handirik egin gabe.

- Ze gobernu mota osatuko duzue?

- Alderdi bateko zein besteko zinegotziren partaidetza nabiko nuke, elkarlana egiteko. Udalaren ardatza EA izango bada ere. Herritarrei dagokienez, zenbait gaitan erreferendumak egiteko prest gaude.

- Nondik helduko diozue lanari?

- Etxebizitzena dugu

arazorik larriena. Aratu Subsidiarioak irekitako bidea aprobetxatuko dugu horretarako. Kale Nagusia berriro nahi dugu, eta Elizmendiko bidea konpondu. Kulturaren ekintzak bultzatu nahi ditugu. Langabeziari arreta berezia eskainiko diegu Enplegua eta Hazienda batzordea sortuz.

- Horrenbeste zeresan eragiten ari diren enparantzarekin eta gasaren auziarekin zer egingo duzue?

- Enparantza botatzea onartu zuten, baina ez dago ondorengo proiekturik. Momentuz galipotez estalita, kaleargiezin eta bankuekin hornituta geldituko da. Proiektua egin eta herriaren iritzia jaso nahi dugu. Urtebete luze igaroko da enparantza berria izan arte. Gasari dagokionez, kanalizazioa

gaizki egongo ote den susmoa dago. Aztertu eta, behar bada, kalea berriro altxatu behar da. Gas biltegia lekuz aldatuko dugu.

- EAJ-PNV eta EA bat eginda aurkeztu zarete Asteasun. Eta beste herrietan?

- EAJ-PNV eta EA ezezik, hiru alderdi abertzaleok ere elkartu eta eraikitza nazionalerako proiektu bat egin behar genukeela uste dut. Udal hauteskundeetan boto espainiarrak izan duen gorakadak eta abertzalearen beherakadak guztioi pentsarazi behar ligoke.

Joxin Mujika, Billabonako Alkatea

“Hemendik aurrera diru faltak irudimena erabiltzera eramán beharko gaitu”

Honako hau Joxini egin dioten bigarren elkarrizketa da; lehenengoa Kuban egin zioten munduko pilota txapelketa jokatzera joan zenean. Bere esanetan egonaldi hura oso esperientzia berezia izan zen. Lau urtez alkatetzan egotea Kubako esperientzia adinakoa izango dela iruditzen zaio, hala ere. Zalantza askorekin aurkeztu omen zen Bidean hauteskundeetara. Hala ere, alderdiaren jarraitzaileen baikortasuna ikusiz, beraiek ere animatu egin omen ziren. Kanpaina bete-betea egin ondoren, alkate kargua hartu baino egun batzuk lehenago pozik eta baikor agertu zaigu Joxin.

- **Politika mundura estreinekoz hurbiltzen al zara?**

- Gaztetan EGAMen (Euskadiko Gaztedi Abertzaleen Mugimendua) ibilia naiz. Gero EEren jarraitzaile izan nintzen. Alderdia desagertu zen, eta BIDEANen egon naiz alderdia orain dela urtebete sortu zenetik. Ordura arte bai EEk bai EuEk herrian izan zuten arrakasta aprobetxatu nahi izan genuen, horregatik sortu genuen BIDEAN. Oraindik ere zenbait gauza egin ginitzakeela ikusten baikenuen. Oso kanpaina bete egin dugu: rifak, mus txapelketak, afariak... Sosik eskatu gabe aritu gara. Oso esperientzia polita izan da.

- **Eta emaitzen balorazioa?**


- Abstentzioa besteetan baino altuagoa izan da, hala ere, ehun boto gehiago lortu ditugu. Jendeak guregan itxaropena izan du, aurreko legealdietan egindako lana ikusita. Jarraipenaren alde eman du botoa. Zalantza handiak geneuz-

kan hasieran, baina inguruko jendea baikor zegoen eta aurrera egin dugu.

- **Zer gertatuko da gobernu berriarekin?**

- Hasieratik pentsatu genuen Gobernu Batzordean alderdi guztiak egon behar zutela ordezkatura. Eta alderdiekin aritu gara bitz egiten. HBk Gobernu Batzordean parte hartzeko proposamena egin zuen, eta guk beste baldintza hau jarri diegu: alegia, Gobernu Batzordeko partaideak izan nahi baldin badute, azken bolada bonetan herrian gertatzen ari diren ekintza basatiak kontrolatu egin beharko dituzte, edota gaitzetsi, gutxienez. Hau da, bake soziala lortu nahi dugu herrian, horixe da, hain zuzen ere, botoa eman digutenek pentsatzen dutena, eta horri erantzun egin behar diogu. Beste mailako ekin-tza batzuei buruz ez dugu hitz egin, eta HBk aurkez ditzakeen beste zenbait moziori harrera egingo diogu. Bai-

Joxin Mujika Mujika



35 urte
SACEMgo langilea
Zaletasunak: pilota

na ezinbestekoa da herrian bake soziala lortzea.

- **Ez zaudete inongo alderdiri lotuta.**

- Ez daukagu arau ideologikorik. Zenbait gai, arazo nazionala esaterako, zehazteko dauzkagu.

- **Ze lehenbait dituzue?**

- Programan ez dugu gauza handirik adierazi. Daukagun azpiegitura aprobetxatu eta bultzatu egin behar dugula uste dugu, orokorrean: Kultur Etxea, zinema... Proiektu berrien artean garrantzitsuenak kiroldegia eta Otxabiko parkea izango dira. Babes ofizialeko etxebizitzak ere egin behar ditugu. Dirua ez dago soberan, eta autofinantzaketara jo beharko dugu askotan, irudimena erabiliz.


ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 **TOLOSA**

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 **ANDOAIN**

Hiru Anaiak

GOZOTEGIA

PASTELERIA

Zumea, 18 **ANDOAIN**

Billabona-Amasa

Nekazal Kamara


Bitartekaritza eta aholkularitza lana eskaintzen diote baserritarrari

Eusko Jaurlaritzaren ardurapean dauden Nekazal Kamarak orain dela hamabost urte sortu zituzten. Gaur egun bederatzi daude Gipuzkoan, bailaretan banatuta, eta horietako bat, hain zuzen ere, Billabonako Berdura Plazan dago. Hona hemen eskaintzen dituzten zerbitzuetakoz batzuk: segurantzaz soziala, errenta aitortpena eta ganaduaren aseguroak egitea. Era horretako lanez gain bulegoa astearte eta ostegun goizetan egoten da irekita baserriarekin zerikusia duen beste edozein galderari erantzuteko.

Orain dela hamabost urte Nekazal Kamarak sortu aurretik, herri guztietan zegoen nekazarien segurantzaz sozialaren gora-beheretaz arduratzen zen funtzionaria. Ondoren Nekazal Kamarak sortu zituzten bailaretan, eta gaur egun eskaintzen duten zerbitzua bestelakoa da. Segurantzaz sozialarekin erlazionatutako guztiaz arduratzen dira, baserritarrek Donostiara joan beharrik izan ez dezaten. Urtero Diputazioak agindutako sa-neamendu lanak bideratzen dituzte ganaduaren osasun egoera ezagutzeko. Ganadu aseguroak ere egiten dituzte. Gero eta gehiago gainera, Billabonako bulegoan dagoen Alberto Labakaren esanetan: "Garesti samarrak dira, baina erditzean edota istripuren bat dela medio izan daitezkeen okerrak ongi babesten ditu". Bestalde, dirulaguntza onak eskaintzen omen dituzte hasieran behintzat: "Aseguroa lehenengo aldiz egiten duenak %18a baino ez dauka ordaindu beharrik". Urte garai honetan berriz, errenta aitortpenak egiteak ematen die lanik handiena.

Segurantzaz soziala

Neskameenarekin batera baserritarrena da babes txiki-ena ematen duen segurantzaz. Behin 65 urte bete ondoren, gehienez 56.000 pezeta inguru kobratzen du baserritarrak normalean. Horregatik, gehienetan legez behin jubilatu ondoren, eta sasoi ona izanez gero, lanean jarraitzen du baserritarrak. Bestalde, elbarritasun eskubi-



Alberto Labaka

dea lortzea oso zaila dute, nahiz eta behin adin batera iritsita ajeak ugari izan: "Elbarritasun osoa lortzeko itsu edo gurgildun aulki batean eserita egon behar du. Elbarritasun erdia lortuz gero berriz, 30.000 pezeta baino ez dute kobratzen". Aurrejubilaziorik lortzea ere oso zaila da, horretarako baserria eta ustiapena seme-alabaren bati edo auzokoren bati eman behar dio baserritarrak.

Emakumezkoak normalean ez dira 40 urtera arte segurantzaz ordaintzen hasten. Ordura arte senarraren kontu egoten dira, biek ordaintzea garestiegi izaten baita. "Behin adin horretara iritsita ordaintzen hasteko aholkatzen diegu emakumei" dio Albertok "era horretan 50 urterekin baja eskubideren bat kobratu ahal izango dute".

Errenta aitortpenak ematen die garai honetan baserritarrei, kaletarrei bezala, buruhausterik handienak. Baserritarrak ordea, kamaretan zerbitzu hori egingo dienik izaten dute. Arlo honetan, hala ere, gauzak aldatzen hasiak dira: orain arte ez esne ez haragitan baserritarrei ez zieten inongo errententziorik egiten, aurtun ordea %2a gordetzen hasia da Ogasun edo Hazienda saila.

Labakari
okindegiak

**ETXekoentzat
APARTEKO
OGIA!!**

Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA

ARANBURU
agentzia

Aseguroak - Aholkularitza
PROFESIONALTASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 beheak
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur

HERRI OSTATUA
TABERNA - JATETXEA

HERRIKO PLAZA - ☎ 69 18 55 - LARRAUL

Asteasu

Jon Usandizaga: iaz geroztik Errealeko kadeteetan

Klabikula hautsita, udan Ekuadorren munduko txapelketa jokatu ote duen zalantzan

Hamasei urteko asteasuar honek iaz jaso zuen futbolean jokatzeko ari denetik inoiz eman dioten berririk onena: Tolosako taldean jokatzeko ari zela, Errealean jokatzeko hautatu zuten. Iaz geroztik aurrelari bezala jokatzeko bertan. Espainiako selekzioan jokatzeko aukera ere izan du Zarautzen lehenengo, Bruselan ondoren. Munduko txapelketa izan daiteke bere hurrengo esperientzia garrantzitsua eta erronka handia. Lepauztaian hartutako minak, ordea, jokatzeko eragotziko dio, beharbada. Dena dela, uda igarota, gazteen taldean hasiko da jokatzeko, eta horrek bere entrenamenduak eta indarrak bikoiztu egin beharko dituela esan nahi du. Ilusioz bete-beteta ari da, hala ere, sasoi berria itxaroten.



Asteasuko eskola utzi zuen orain dela bost urte Tolosa-ra joateko. Herriko taldean jokatzen ari zela, Errealetik deitu zioten iaz. Eta aurten Espainiako selekzioarekin jokatzeko aukera izan du. Esperientzia motz samarra izan da: Bruselan Portugaleko taldearen aurka jokatu, galdu eta hortxe amaitu zen taldearentzat txapelketa. Oso denbora gutxian futboleko urrats handiak eman dituela iruditzen zaio Joni. Hala ere, badaki aurretik daukan bidea zailagoa eta neketsuagoa izango dela. Errealean goi mailara iristea gustatuko litzaioke; zorte txarrak, minen batek, edota entrenadorearen irizpideak bide zaildu egin dezakete ordea. Ho-

regatik, gora iritsi behar horrekin Jonnek ez du burua gehiegi hautsi nahi eta futbolari bezainbeste eutsi nahi die ikasketei.

“Espainiako selekzioarekin Zarautzen jokatzeko gogorra izan zen”

Espainiako selekzioan jokatzeko oso garrantzitsua izan zen beretzat. Hala ere, Zarautzen egindako saioak bere esperientzia zertxobait ozpindu zuela iruditzen zaigu: “Zarautzen jokatu genuen abenduan Espainiako selekzioarekin”, kontatu digu, “gaz-

te batzuek partidua baino lehen itzez josi zuten zelaia eta selekzioaren aurkako pankarta batekin azaldu ziren. Nahiko momentu gogorra izan zen”. Pasadizu hari buruz galdetu diogunean saio hari probokazio kutsua hartzen dio: “Espainiako selekzioak ez du inoiz hemen jokatu, eta...”. Beharbada, horregatik esan digu Euskal Herritik kanpo gustorago jokatzeko duela. Dena dela, Bruselako esperientzia oso baliagarria izan zitzaioala aitortu digu: “Nahikoa gaizki jokatu genuen, eta portugaldarrek maila altua erakutsi zuten”. Jonnek udan munduko txapelketa jokatzeko aukera izango du Ekuadorren, lepaustuak minak, ordea, kanpoan utzi dezakeen beldur da.

Sasoi berrirako prest

Hilabete pare berru ekingo die entrenamendu berriei gazteen taldean. Orain arte astean birritan entrenatzen zuten; aurrerantzean lau saio ere egin beharko ditu. Baina, esaerak dioen bezala, “gustoko tokian aldaparik ez”. Ilusioz beteta hasiko omen da entrenatzen abuztuan uda partean atsedean pixka bat hartu ondoren, eta zaindu beharrak urte osoan egitea galerazi dizkion parrandak egin ondoren.



Andoain

Leizaurrek bi txirrindularitza probak bertan behera utzi ondoren

A. Gomez lehendakaria: "Ez dut uste probak berreskuratuko direnik"

Maiatzaren bukaeran egitekoa zen VI. zikloturismo klasika eta irailean berriz, mendiko bizikletazaleentzat "Leizaur zirkuitoa". Talde andoaindarrak Gipuzkoako txirrindularitza federazioarekin urteetan izan du nahiko harreman txarra. Bien arteko ulertu ezinak, ordea, martxoan Leizaur taldearen zuzendaritza batzordearen dimisioa eragin zuen, eta ondorioz, bi probak bertan behera uztea erabaki zuten.

Gipuzkoako probarik jendetsuena izan da orain artean Andoaingoa eta baita hobekien antolatuta egon dena, askoren esanetan. Hurrengo urtera arte Leizaurrek ez du zuzendaritza berririk izango, baina lehendakari ohiaren esanetan asko kostatuko da probak berriro berreskuratzea.



"Federazioa geldi samar egon da beti" esan digu Gomezek, "askotan joan izan gara ideia berriak proposatzera eta baita zenbait gaitan ere kontuak eskatzera, eta aspaldi begitan hartu gintuztela iruditzen zait". Federazioko esanetan Andoaingo klasika "gehiegizkoa" zen, eta garestia gainera -1.000 pezeta ordaintzen zuten partaideek-. "Badirudi gauzak ongi egitea ez zaiela inoiz gustatu", dio Antoniok. Bestalde Leizaurrek probarekin negoziarik inoiz ez duela egin ziurtatu digu: "Partehartzaileek 1.000 pezeta ordaintzen zuten, baina janaritan, saritan eta arropatan beste hainbeste eta gehiago ematen zitzaien".

Publizatateak ere eragin du bi erakunde arteko liskarra. Nonbait, kartelak egiteko orduan elkarrizkari

zitatea eta babesleak kentzen aritu dira. Baina andoaindarrak benetan onartu ezin izan dutena isilean mendiko bizikleta proba urtero antolatu ohi duten egunean DVk antolatuko duen elitezko proba bati lehentasuna ematea izan da: "Egun berean eginez, normala denez, gurean askoz ere jende gutxiago egongo da. Zazpi urte geroztan egun berean antolatzen" gaineratu du Gomezek haserre.

Andoaingo klasikak 600 pertsona inguru bildu ditu urtero. Mendiko txirrinduan parte hartu izan dutenak berriz, 900era ere iritsi dira. Antonio Gomezek mindu samar esan digu beste ezerk baino bi elkarten arteko ezinikusiak eragin duela bi probak bertan behera utzi izana.

Muskil elkarteko txapelkunak

Eskolarteko esku pilota txapelketan asteasuarrentzat izan dira bigarren postuak, Alkizako atetik alebinitan nahiz haur mailan. Asteasuko Iker Irazu eta Eneko Arizeta izan dira txapelkun ordeak alebinitan, eta Igor Narbarte eta Eneko Beldarrain asteasuarra haur mailan.

Muskil elkarteak dei egiten die herrietako neskatoei bereziki eta beren gurasoei esku pilota mutilen jokoak ezezik, neskena ere badela ohartaraziz, eta anima daitezen aurtengo udan frontoietan palan nahiz raketazn jokatzeko.




**GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA
GIRO EDERRA!!
KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN**

Ageltsaritza

M. USABIAGA

Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa
☎ 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)



**ZUBi
AUTO ESKOLA**

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

Lehiaketa

Jakina, **Kontxu Odriozola**, **Goenkaleko Maria Luixa** da pertsonaia ezkutua eta Asteasuako **Leyre Usandizagak** asmatu eta irabazi du lehiaketa. Asteasuarrak esan digunez erraz asko asmatu du aurpegi itxuraldatua. Argazkian duzue Leyre **Ormendi Kirolak dendan sari bikaina** jasotzen. Gutunak bidali dituzuen beste guztiak ez etsi. Hurrengo alean izango duzue eta, zer asmatu eta zer irabazi. Zorte on!



ZALDUNAREN LIKOREA, MUTILZAHARRAREN KONFITURA EDO RON POTEA

Osagaiak:

- Frutak
- Alkohola
- Azukrea
- Zortzi litro edukiera daukan es-talkidun ontzia


Heldu ahala biltzen diren frutak alkoholarekin eta azukrearekin nahastuz egiten da likorea. Oso edari atsegina izateaz gain, alkoholak mazedonia berezi hau "zoragarri" ere bihurtzen du.

Maiatzean marrubiekin ematen zaio prozesuari hasiera: txurtenik gabeko 500 gramo marrubi jarri behar dira 125 gramo azukrearekin batera beratzen. Handik ordu ba-

tzuetara, azukrea urtu denean, marrubiak ontzian jartzen dira bere zukua eta guzti. 45-50 gradu bitarteko litro erdi pattarrez estali. Rona, brandy-a edo whisky-a ere erabil daitezke. Azukre kantitatea nork bere gustuaren arabera molda dezake. Gozotasun maila ezberdinak eman dakizkioke edariari.

Gereziak heltzen direnean prozesuak jarraitu egiten du. Hezurrik gabeko kilo erdi gerezi garbi 125 gramo azukrearekin beratzen dira gozagarria urtu arte. Ondoren ontzira bota, litro erdi pattarrez estali, eta ontzia itxi.

Magurdiekin, albarikokeekin, muxikekin, aranekin, madariekin eta mahatsarekin gauza bera egiten da. Muxikak eta udareak aldez au-



Iñaki Trueba
Zizurkilen irakasle

rretik zuritu eta puskatan zatitu behar dira.

Ontzia beti estalita eduki behar da alkohola lurrun ez dadin. Bi hilabete igaro ondoren has daiteke bertatik edaten. Baina likorea edateko gararik onena Gabonak dira.

KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162 ANDOAIN

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

Hiritarren sudurra

Nere sorterrian, Etxebarren alegia, landetxe bat badago, oporretara datozkienei alokatutakoa. Landa turismoa bultzatzen duen egitura batek kudeatzen ditu etxe hauek eta beraien jabeak, aldiz, garbiketa eta gainontzeko morroi lanetaz baino ez dira arduratzen.

Iragan aldi batez, Etxebarreko landetxearen jabe den laboraria, ohiko lan baten egiterat zetorren, hau da, baserriaren inguruko sorotan simaurra hedatzerat, lurraren ongari gisa. Une hartan, landetxean zeuden jendeak protesta egiten hasi ziren, bai zera eta, abelgorriaren usaina jasan ezin zutela eta nekazariak bere lana utzi behar zuela. Beraien autoak ere traktorearen eragozgarri jarri zituzten baina laborariak hauen gainetik igaroko zela mehatxatu ondoren, bere "ekintzatxoa" bertan behera utzi zuten. Landetxeko kudeantza daraman egiturari beren haserrearen adierazterat joan ziren, haatik, baserriko usainak higuin zituzten hiritar haiek.

Hau da ixtorio arraroa, pentsa dezakezue, beharbada. Nik, ordea, ez dut uste hain arraroa denik. Turismo jarduerari lehentasuna eman dieten eskualde guztietan antzekorik gertatu da. Landa turismoari dagokionez, laborantza bizitzen lagundu beharrean, herrialde askotan ito egin du erabat. Batzuek diotenez, Zuberoan oraindik ez da horrela eta "turismo kontrolatua" bideratuta dago. Hori egia badin bada, sudur minberatiegiak dituzten "inkontrolatu" horiek urratsean jar bitzate!

Allende Sokarros.

Euskaldunon Egunkaria. Ganbaratik. Ekainak 9.

ENTZUKETAK

Hamaika aldiz bitzegiten da telefonotik barrena,

pentsatu gabe jakin leikela

esaten ari zarena.

Galdera ta erantzuna,

beste batek entzuna,

ta zein da erabilpena?

Telefonoa denontzako da

baina ez esaten dena.

Jokin Sorozabal

Euskaldunon Egunkaria



HOL - ATZ






VACSOL - WR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, 2/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA



Gema

Loradenda

LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale Nagusia, 5 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

HONDA

YAMAHA

KAWASAKI

SUZUKI

AZKAIN

MOTOAK

MOTUL

FERODO

NZI

CASTROL

DAINESSE

AGV



• MOTORRETARAKO AKZESORIOAK • NEUMATIKOAK
• MOTORE AZTERKETAK

Eskeintza berezia eta mugatua.
Edozein motor erosita:
EURODISNEY-era bi pertsonentzako bidaiata eta sarrerek.
Miarritzetik hegazkinez.

UBILOS AUZOA - 56.POLIGONOA - 12 zenb ☎59 14 13 ANDOAIN



J. Antonio URBIETA

- Garraioak: 16m. grua
- Urte osoan su egurra
- Bere garaian lastoa eta belarra

Kale Nagusia, 4 - 2. ASTEASU
Tel. 69 30 92 - 69 26 76

Agenda

MUSIKA

BILLABONA

Ekainak 3: Dixiekleta jazz bandaren saioa Gurea zinearetoan 20.00etan.

ANTZERKIA

ZIZURKIL

Uztailak 8: Antxieta antzerki taldearen saioa Zizurkil goialdeko zimiterioan 22.30etan. "West side history" antzezlan eskainiko dute.

IKUSENTZUNEZKOAK

ZIZURKIL

Uztailak 4: "India-Cachemira. Kun (7.085m.);" diapositiba emanaldia Kutxaren laguntzaz 20.00etan. Egi-leak: Susi Elozegi, Txetxu Lete eta Juan Ramon Jobar.

Uztailak 5: Bartolome Auzmendi erretore zenak 60eko hamarkadako herriko giroari buruzko bideoa eskainiko du Kultur Etxean 7.30etan. Herri-tarrek kopiak egin ahal izango dituzte.

ERAKUSKETAK

BILLABONA

Uztailean: Patxi Epelde eta Iñaki Epelderen pintura erakusketa Gurea erakusgelan.

IKASTAROAK

ZIZURKIL

Ekainak 27-Uztailak 26: Aerobik ikastaroa asteartetan, ostegunetan eta ostiraletan 10.30-11.30 Kultur Etxean.

IBILALDIAK

BILLABONA

Uztailak 15-16: Aizkardi mendi taldeak antolatuta Pirinioetan ibilaldia: Gavarnie-Monte Perdido (3.355m.)- Marbore-Taillon (3.144m.)- Gavarnie.

ZINEMA

GUREA ZINEMA BILLABONA

"Mujercitas"
"Solo ellas"
"Historia del Kronen"

San Pedro Jaiak ASTEASUN

Ekainak 28

16.00etan: Asteasuko XX. txirindulari proba.

20.30etan: Txupinazoa, sorginaren jaitsiera eta kalejira.

22.30etan: Dantzaldia trikitilariekin.

Ekainak 29:

San Pedro eguna

11.00etan: Meza Nagusia eta Elizmendiko jai.

18.30etan: Ozenki taldearen kalejira, txistu kontzertua eta dantzariak.

22.30etan: Egan Berria taldearekin dantzaldia.

Ekainak 30:

Zabarren eguna

10.30etan: Herri meza.

12.30etan: Iraunkorrak txaranga.

13.00etan: Herriko gazteen arteko kirol lehia.

14.30etan: Zaharren bazkaria Iturri-Ondo jatetxean. Bertan izango dira Lizaso eta Agirre bertsolariak eta Xapre eta Zaharra trikitilariak.

18.30etan: Herri-kirol jaialdia. Barrikotea ondoren herriko plazan.

22.30etan: Bertso jaialdia: Peñagarikano, Irazu, Mendizabal eta Soroza-bal. Akelarrerekin dantzaldia ondoren.

Uztailak 1:

Umeen eguna

Goizean umeentzako jolasak.

14.30etan: Umeen bazkaria frontoian.

16.00etan: VIII. mus txapelketa herrikoia.

21.30etan: Herri afaria, ondoren Iraunkorra txarangarekin gaupasa.

4.30etan: Txokolatada.

Uztailak 2:

10.00etan: Asteasuko ganadu feria erakusketa eta Euskadiko sokatira txapelketa.

19.30etan: Herri-kirol jaialdia.

22.30etan: Dantzaldia Trakets taldearekin.

Goiz eta arratsalde haurrentzako parkea egongo da herriko enparantzan.



Kaletxikiko San Pedro jaiak ondo igaro ditzazuen opa dizue...

Ama Kandida
Etorbidea,
DENAC Poligonoa,
203, Pabeloia
Telefonoa 30 01 69
ANDOAIN



AUTOEN
MEKANIKA
OROKORRA

ZABALAGA TAILERRAK

urteurrena
25
urteurrena




JOSEBA
Altzariak

KALETXIKI, 6 - FAX eta TELF. 59 07 61 ANDOAIN

FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - Tel.: 59 02 58 - ANDOAIN



**TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa
Telf.: 592923
ANDOAIN

Linterneria
ASTIGARRAGA

- Gas instalakuntza
- Kristaldegia
- Bainu gelak
- Berogailuak

EXPOSIZIOA: Kale Txiki, 11 - ☎ 59 08 61
ETXEKOA: ☎ 59 11 02 **ANDOAIN**

Taberna - Jatetxea

BURUNTZA

• Ezkontzak • Bataioak • Jaiantzeak

Kale Txiki, 15
Telefonoa. 59 06 47

20140 Andoain

KIROLETAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
EDURNE**

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

rikardo

arregi

*Baloraziozko
kazetaritza*

Sekzioa

Erreportaia

*Herrietako
Aldizkariak*

Uztailak 8

Sarien banaketa



kazetaritza

29119

ΚΑΖΕΤΑΡΙΤΣΑ

saria